

AZALAREN EGILEA

“Paisajismoaren eta arkitekturaren arteko loturak historian zehar, irudikapenen bidez landuak”

Iranzu Antonarekin solasean



Irudiaren egilea ~ Pirati.

Zenbaki honetako Azalaren Egilearekin, Iranzu Antonarekin hain zuzen ere, aritu gara Arkitekturaren eta Paisaiaren inguruan dituen kezkei buruz. Horietaz hausnartzeko egin dituen hainbat hurbilketa ariketa azaldu dizkigu Bilbon egin dugun zitan.

Nolakoa izan da zure ibilbidea artean eta nola sortu zen portada barne hartzen duen proiektua?

Iranzu- Arte Ederrak ikasi ondoren, doktorego-kurtsuak egin nituen, eta gerora Nafarroako artista gazteen saria eman zidaten 15 urte daramatzat Bilbon hortaz, eta duela hiru urte Bizkaiko Foru Aldundiko beka eman zidaten eta 6 hilabetez New Yorken bizitzeko aukera izan nuen. Han «Paisaia Egin»ko lehen pieza egin nuen, aldi berean «Topalekua eragin» proiektua garatzen nengibela.

Koldo Mitxelena aurten egon den «Paisaiaren murmurioa» erakusketako zure lana aztertuta, esan daiteke zuretzat paisaia betiere osagai humanoaren edo subjektuaren bitartez eraikitzen dela, hau da, ez dela «hor kanpoan» dagoen zerbait?

Abiapuntuko ideia zera da, paisaia eraikuntza kultural bat dela. Hortik aurrera, proiektua paisaia eraikitzeke zenbait modutara egiten ditudan hurbilketa txikiak dira. Hasierakoak nik naturan egiten ditudan akzioak dira, esaterako New Yorkeko Central Park-eko zuhaixka baten plano finko bat erakusten duen bideoa. Plano oso itxia da eta ez da nabari aurrean duen bidea eta edonon dagoela esan daiteke. Baina, norbait igarotzen denean, egoeraren aldaketa bat gertatzen da. Ordea, bideoari begira dagoena, egoera kontenplatibo batean dago; paisaiaren eraikuntza piktorikoarekin zerikusia duena, alegia. Baina, pertsona igarotzen denean, kontenplaziotik atera, inguruneaz ohartzen gara bai eta paisaiaren eraikuntza piktorikoaz ere.

Beraz, proiektua horrelako akzio txikien bidez hasten da.



Maider Uriarte Idiazabal
Arkitekto doktorea eta EHUKo irakaslea
Jasotze-data: 2015-07-02
Onarpen-data: 2015-09-18

Kamara bat paisaian sartzen denez gero, eraikuntza bat sortzen da, begirada bat ezartzen da, esanahi bat ematen zaio. Adibidez, Bakio inguruan dagoen Atzuloren inguruan ere bideo bat egin nuen. Toki hori bertakoek baino ez dute ezagutzen, bertara iristea zaila da, nahiko basatia da eta. Itsasora iristen den kobazulo bat da, eta itsasbeheran sartzea komeni da, hau da, kontuz ibili behar da. Nik barneko plano bat egin nuen, eta beste bat kanpotik testuingurua adierazteko: kobazuloa barnean duen mendiarena.

Proiektuaren beste zatia, Fuente Dé-n (Kantabria) egindako argazkiak dira. Argazkiok ez dira paisajistikoak, helburua mendiaren irudi nagusia erreproduzitzea zen. Gailurraren argazki estereotipiko hori mendizaletasuna jorratzen duen edozein aldizkaritan azal daiteke. Hori da helburua. Gainera, teleferikoz iristea ere mendiaren irudia eta paisaia horren eraikuntza aldatu egiten du. Arkitekturak paisaiaren pertzepzioa aldatzeko duen ahalmena interesgarria iruditzen zait.

Hortaz, hiru toki hauek: zuhaixka anonimoa New Yorkeko oso toki esanguratsuan, Bakioko kobazulo ezezaguna, bertaratzen ez bazara agian existitzen ez dena, eta Fuente Dé oso toki turistiko eta ezezaguna. Zein da beraien arteko lotura? Nahita aukeratu al dituzu? Tokiaren izena adieraztea interesatzen al zaizu?

Tokien arteko lotura hau da: denek paisaiaren eraikuntzari buruz hitz egiten dute, irudiak paisaia eraikitzen duela ohartarazten du proiektuak. Denak bata bestearen alboan jarrita ideia hori hobeto ulertzen dela esan daiteke. Baina tokiak zoriz aukeratuta daude.



Argazki-iturria –Iranzu Antona.



Irudia ~ "Dar Encuentro"ren erakusketa Rekalde Aretoan.
Argazki-iturria –Iranzu Antona.

Tokien izena batzuetan adierazten dut, besteetan ez. Fuente Dé-n garrantzitsua da. Zumaian izan nuen erakusketa batean ere hala izan zen. Orduan, Karrantzako Pozalagua kobazuloan egindako deskubrimendu bat adierazten zen. Kobazuloan munduan dagoen estalaktita eszentrikoen kontzentrazio handienetarikoa topatu zuten, eta oso ongi mantendu da orain arte inor bertan egon ez delako. Baina orain zabaldu egin dute, eta oso interesgarria iruditzen zait ekosistema hori nola aldatu dan gertaera arrunt horren eraginez.

Atzuloko eta Pozalaguako kobak, Europako Mendiak, esan daiteke toki oso ezagun eta turistikoak hain ezagunak ez direnekin nahasten direla, lur-azpian dauden espazioak paisaia bihurtzen dira bertara norbait sartzen denez geroztik. Ideia hori lantzeko intentzioa zenuen?

Proiektua oso zabala da, eta besterik gabe zenbait akzio nik sortzen nituen, eta ez dago intentzio hori, baina interesgarria iruditzen zait. Nire ustez, aldizkari honetarako interesgarria da Fuente Dé-ko irudia erabiltzea, azaltzen delako nola gertatzen den paisaiaren manipulazioa gizakiaren eraginez, arkitektura nola bilakatzen den paisaia.

Mendiko paisaia, paisaiaren eraikuntza nagusi bat da, hasieran toki beldurgarri bat zena, ondoren sublime bihurtzen da, gero zientifikoak azaltzen dira eta argazkiak ateratzen dituzte, zure estilokoak, eta amaieran turismo-gune bihurtzen dira...

Proiektua paisaia menderatzeko dagoen joerari buruzkoa da. Arkitekturak paisaia menderatzen du, baina hura

antolatu ere egiten du, ezta? Nik hori erakutsi nahi nuen, besterik ez. Betidanik interesatu izan zait bizirauteko egiten den ingurumenaren menderatzearen eta bestela dagoen erabateko kaosaren arteko tentsio hori. Proiektuak lekuak egiteko dauden alderdiak besterik ez du lantzen.

Aukeratu dituzun tokiak nahiko naturalak direla esan daiteke, bestelako toki ez hain naturalekiko interesik duzu?

Ez dakit, nahiko intuitiboa da. New Yorken duela hiru urte egon nintzen eta pieza hura pentsatu gabe, gutxika, atera zen. «Hacer Paisaje» proiektu aski prozesuala izan da. Ariketa txikiak direnez gero, ez diote egitura total bati erantzuten, egin ahala aldatu egin da proiektua. Hasieran nik eragiten nituen akzioak ziren, eta gerora behaketarantz jo dut.

Nafarroako Arbeiza herriko ibaiaren argazki-sekuentzian, esaterako (Koldo Mitxelena «Paisaiaren Murmurioa» erakusketan ikusgai), nik buruan nuen paisaia erromantiko alemaniarraren irudi baten bilaketa adierazten da. Jazarpeneriketa bat da, irudi baten atzetik. Saiakera horren emaitza gisa sekuentzia sortzen da, eta harrapakin gisa Koldo Mitxelenan erakusgai zegoen beste argazki txiki hura jarri nuen. Paisaia erromantiko alemaniarrarekin batere zerikusirik ez duena, aitzitik, berrinterpretazio bat da.

Azalduko al zenuke «Topalekua Eragin» proiektua zeri buruz den?

Grezia gonbidatu ninduten nazioarteko beste artista batzuekin egonaldi bat egitera, eta ondoren bidaia bat egin genuen. Proiektuak bi alde nagusi ditu eta abiapuntua bi



Irudia ~ "Dar Encuentro"ren erakusketa Azkuna Zentroan.
Argazki-iturria ~Iranzu Antona.



Irudia ~ Delfos, Grezia.
Argazki-iturria ~ Julen Agirre Egibar.

eredu arkitektoniko ustez ezberdinen arteko loturan datza. Biek oso oinarri arrazionala dute, baina giza gorputzaren eskala eta proportzioaren ideiarekin ere jolasten dute. Nik lotura hori sumatzen nuen, eta gerora ikertuaz topatu nuen. Grezia Klasikoaz eta arkitektura modernoko Mies van der Rohe eta Le Corbusierren ereduez ari naiz.

Hortaz, proiektuak hainbat maila ditu: batetik, «Hacer paisaje»n bezala, irudiari buruz hitz egiten da. Izan ere, maiz arkitektura hauen berri izaten dugu argazkien edota postalen bidez. Horretarako bideo bat egin nuen Akropoliaren inguruan. Nolabait arkitekturaren banalizazioaz hitz egiten dut, I. pertsonako esperientzia arkitektoniko horren irudi bidezko banalizazioaz, alegia. Masiboki erreproduzitzen den irudi horrek arkitektura beste zerbaitek bihurtzen du.

Zer paper du Mies-en Seagram eraikinak hemen, beraz?

Batetik, kapitalismoaren ikur-irudi nagusi gisa erabiltzen da, New Yorkeko etxe orratz guztien irudi nagusia. Bestetik, aztarna greziarren irudi turistikoek Greziaz erakusten dute, baita arkitektura ere, oso modu eskasean ordea.

Zein da zure ustez gabezia?

Tira, nik Mies-en eraikinaren argazki arkitektoniko bat eskaneatu nuen, argazki egoki bat, paralax efektua zuzenduta duena. Argazkia eskaneatuz nirea egiten dut, eta, hala, horrelako arkitekturen eta irudien erreproduzioari aipua egiten diot. Alboan nik bertatik bertara egindako argazkiak kokatu nituen. Argazkiotan Miesentzat hain garrantzitsua zen kalearen eta eraikinaren arteko trantsizio-eremu hori ageri da.

Liburuko argazkiak forma perfektua adierazten du, eta, zure argazkiekin, ordea, Miesen asmoak adierazi nahi zenituen...

Batetik sinboloaren argazkia jartzen dut, horregatik izan behar zuen eskaneatutako irudi bat. Nire argazkiek, aldiz, arkitektura on baten ezaugarriak erakutsi nahi dituzte. Iruditzen zait, ez dakit hala den edo ez, arkitektura modernoaren oinarrietan aintzat hartzen zela materialekiko, proportzioekiko, eskalarekiko eta hautematearekiko sentsibilitate bat; eta iruditzen zait Miesek zein Le Corbusierrek baliatu zutela alderdi hori euren arkitektura egiterakoan.

Gainera, uste dut hori bera dela Grezia Klasikoarekin topagunea eragiten duen alderdia. Adibidez, Delfosen kasuan, izugarria da tokia, itzelezko sentsazioa bizi dezakezu han. Nolatan lortu zuten arkitektura paisaia horretan barneratzea, eta horrek zu ondo sentiarazteko duen ahalmena sinestezina da. Ez da debaldekoa lan hauek aukeratu izana. Horregatik proiektuak hainbat irakurketa ditu: eduki errealean banalizazioarena, eta, bestalde, arkitektura on batek dituen elementu komunez ere hitz egiten du. Horrek eragiten du topalekua.

Mendiaren irudi horrek mendiaren inguruan eraikitako irudi bat adierazten du, eta gauza bera gertatzen da Greziako eta arkitektura modernoaren irudiekin. Zenbat aldiz ikusi ditugu argazki horiek?

===

Erredakzioan itzulia